

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa honetan Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak esleituta dituen eginkizunak gauzatzearen ondoriozko aurrekontu inplikazioak jasotzen dira, betiere jardunaren xede den gaia dela-eta berariazko programarik ez badute; hau da, aurrekontuen eta konpromiso instituzionalen, kontabilitatearen eta kontrol ekonomiko-finantzarioaren arloak hartzen ditu barne.

Programa honen helburuak orain likidatzen diren aurrekontuak onetsi zirenean ezarri ziren.

Helburu horiek modu koherentean lerrokatuta daude Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ISO 9001:2015 arauaren esparruan egiten duen kudeaketarako ezarrita dauzkan helburuekin. Arau hori urtero-urtero ziurtatzea finantza eta aurrekontuen arloko plangintza eta zuzendaritza helburuaren zerbitzura dago.

ISO 9001:2015 arauak helburuak modu estrategikoagoan finkatzea ekarri du, ingurunea analizatzearen eta gure jardueran interesa duten alderdiak aztertzearen bidez; hala, epe ertainerako ekintza estrategikoak ezarri ahal izango dira (kasu honetan, 2022-2023an).

Bestalde, 2022ko ekitaldirako helburu estrategikoa nabarmendu behar da: ekonomia eta finantza kontroleko sistema berritzea eta Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu erregimeneko foru arau berri baten proiektua onartzea.

Horretarako, zuzendaritzaren jarduera, oro har, eskura dauden bitartekoak kudeatzean, programatzean, koordinatzean eta kontrolatzean oinarritzen da, eta honako arlo hauetan gauzatzen da:

- Arabako foru sektore publikoa eratzen duten erakundearen egitate ekonomiko guztien kontrola. Kontrolatzat indarrean dauden xedapenak ezarritakoa

I. MEMORIA

Este programa recoge las implicaciones presupuestarias derivadas de la realización de las funciones que tiene atribuidas la Dirección de Finanzas y Presupuestos y que no tengan un programa específico por razón de la materia objeto de actuación, esto es, abarca las áreas de presupuestos y compromisos institucionales, contabilidad y control económico-financiero.

Los objetivos del presente programa son los que se establecieron al tiempo de aprobarse los presupuestos que ahora se liquidan.

Esos objetivos están alineados, de forma coherente con los objetivos que la Dirección de Finanzas y Presupuestos tiene establecidos para la gestión que realiza en el marco de la Norma ISO 9001:2015, cuya certificación anual está al servicio del objetivo de planificación y dirección del área de finanzas y presupuestos.

La Norma ISO 9001:2015 ha supuesto una nueva forma de fijar los objetivos de una manera más estratégica con un análisis del entorno y con un examen de las partes interesadas en nuestra actividad de manera que se puedan establecer acciones estratégicas a medio plazo (en este caso en el horizonte 2022 - 2023).

Por otra parte, hay que destacar el propósito estratégico para el ejercicio 2022 de renovar el sistema de control económico-financiero y aprobar el proyecto de una nueva norma foral de régimen económico y presupuestario del Territorio Histórico de Álava.

A tales efectos, la actividad de la Dirección se concreta, genéricamente, en la gestión, programación, coordinación y control de los medios disponibles y en el ejercicio efectivo de las siguientes áreas:

- Control de todos los hechos económicos en las instituciones que forman el sector público foral de Álava, incluyendo en su ámbito las Sociedades

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

hartzen da, eta Administrazioaren barruan foru sozietate publikoak, foru fundazioak eta foru erakunde autonomoak sartzen dira. Kontrola aurretiaz zein a posteriori egiten da auditoretza tekniken bitartez.

- Aurrekontuen aurreproiektuak prestatzea eta ekitaldian zehar indarreko aurrekontu taldekatzean egiten diren aldaketak kudeatzea.
- Gertaera ekonomiko guztiak erregistratzea eta kontabilizatzea, Ekonomia eta finantzak kontrolatzeko sistemaren bidez.
- Batzar Nagusiei proposatzea Arabako Lurralde Historikoak behar dituen urteko aurrekontuak.
- Finantza eta aurrekontuen arloari buruzko informazioaren gardentasuna eta herritarrek informazio hori erraz lortzea sustatzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea.

Horretarako, egiaztatu behar da Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 48 langile dituela, honako kategoria hauetan banatuta:

- Goi mailako 30 teknikari (burutzak barne).
- 18 administrari eta administrari laguntzaile.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Txosten hau berrikusteko, lau jarduketa arlo hartuko dira kontuan:

- 1.- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza.
- 2.- Kontabilitatea.
- 3.- Aurrekontuak.
- 4.- Kontrola eta Auditoretza.

1.- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren arloa.

Aurrekontuen arloko irizpideak eta lehentasunak ezarri ziren eta, haietan oinarrituta, 2023rako aurrekontuaren aurreproiektua, gerora Arabako Batzar Nagusiek onetsi zutena, prestatu zen eta

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Públicas Forales, Fundaciones Forales y los Organismos Autónomos Forales, tal y como se establece en las disposiciones en vigor. Este control se realiza con carácter previo o a posteriori mediante técnicas de auditoría.

- Elaboración de los anteproyectos de Presupuestos y gestión de todas las modificaciones que se hagan a lo largo del ejercicio en la agrupación presupuestaria vigente.
- Registro y contabilización de todos los hechos con contenido económico, a través del Sistema de Control Económico y Financiero.
- Proponer a las Juntas Generales unos Presupuestos anuales con las características necesarias para el Territorio Histórico de Álava.
- Realizar las actuaciones precisas para el fomento de la transparencia y el acceso sencillo por la ciudadanía de la información relativa al área de finanzas y presupuestos.

A tales efectos, constatar que la Dirección de Finanzas y Presupuestos cuenta con una plantilla en la que trabajan 48 personas que se dividen en las siguientes categorías:

- 30 técnicos superiores (incluye las jefaturas).
- 18 administrativos y auxiliares administrativos.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para la revisión objeto de este informe se contemplarán cuatro áreas de actuación, a saber:

- 1.- Dirección de Finanzas y Presupuestos.
- 2.- Contabilidad.
- 3.- Presupuestos.
- 4.- Control y Auditoría.

1.- Área de Dirección de Finanzas y Presupuestos.

A través de la fijación de criterios y prioridades, en materia presupuestaria se elaboró y se propuso al Consejo de Diputados un Anteproyecto de Presupuestos para 2023 que, finalmente fue

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Diputatuen Kontseiluari aurkeztu zitzaion.

Halaber, eta lehenago aipatu den bezala, Zuzendaritzaren eremuan 2022rako ezarritako helburuak, gainerako arloetan izan den eragina gorabehera, bat datoz kalitatearen kudeaketarako ISO 9001:2015 Arauari atxikitako kudeaketa aintzat hartuta ekitaldi horretarako ezarritako helburuekin.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren ezarritakoa betetzeko, helburuen aldizkako jarraipena egin da, eta horiek betetzeko beharrezkoak izan diren ekintzak gauzatu dira. Aurrekontuan jasotako adierazleak behar bezala bete dira.

Hain zuzen ere, honako hauek nabarmendu behar dira berariaz:

- Zuzendaritzaren politikaren definizioa berrikusi da, Sailaren politikaren esparruaren barruan Helburuak eta adierazleak zehaztu dira haren jarraipena egiteko, eta lana bideratu da hura lortzeko.
- Alde horretatik, kudeaketako barne auditoria bat egin da sistemaren funtzionamendua kontrolatzeko, eta gainditu egin da ziurtapena berritzeari begira AENORek egindako berrikuspena.
- Bestalde, lanaren jardun normala kontrolatzeko hainbat magnitude ere zehaztu dira. Magnitude horiei kudeaketa adierazle esaten diegu; haiei ere etengabeko jarraipena aplikatu diegu.
- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzan lan egiten duten pertsonentzako trebakuntza beharrianak antzeman dira, beren lanean txertatu ahal izateko teknologia, lege eta kudeaketa arloko lanabesen ezagutza ahalik eta eguneratuena eta egokiena. Plana prestatzeko, langileek eurek azaldutako trebakuntza beharrianak hartu dira aintzat. Plana egiaz nola gauzatu den aztertu da eta, bete ezin izan den kasuetan, alternatibak proposatu dira.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

aprobado por las Juntas Generales de Álava.

Asimismo, tal y como se ha mencionado anteriormente, los objetivos para 2022 en el ámbito de la Dirección, sin perjuicio de la incidencia que se haya producido en las demás áreas específicas, han sido coherentes con los objetivos que se fijaron para el citado ejercicio en base a la gestión realizada en el marco de la Norma ISO 9001:2015 de gestión de calidad.

En cumplimiento de ese Sistema de Gestión de la Calidad se ha venido realizando un seguimiento periódico del cumplimiento de los objetivos y se han llevado a cabo las acciones necesarias para darles contenido, con resultados satisfactorios en cuanto al cumplimiento de los indicadores presupuestados.

Concretamente cabe destacar de forma expresa lo siguiente:

- Se ha revisado la definición de la política de la Dirección en el marco de la del Departamento. Se han definido objetivos e indicadores para su seguimiento y se ha orientado el trabajo para su consecución.
- En este sentido se ha realizado una auditoría interna de gestión con el fin de controlar el funcionamiento del Sistema, y se ha superado la revisión por parte de AENOR de cara al mantenimiento de la certificación.
- Por otra parte, también se han definido una serie de magnitudes que sirven para controlar el normal desarrollo del trabajo. A estas magnitudes las hemos denominado indicadores de gestión que también han sido objeto de seguimiento continuo.
- Se han detectado las necesidades de formación para las personas que trabajan en la Dirección de Finanzas y Presupuestos con el fin de que incorporen a su trabajo un conocimiento lo más actualizado y acorde posible de las herramientas, tanto tecnológicas como legales y de gestión. Esto ha sido confeccionado tras recoger las necesidades formativas que esas personas han expresado. La ejecución real de este plan ha sido analizada y en los casos en que no ha podido cumplirse se han propuesto alternativas.

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Bestalde, 2022an ere informazioa eman da Arabako ekonomiaren unean uneko eboluzioari buruz, eta informazio hori gizarte osoari eman zaio jakitera, xehetasunez eta ordenatuki. Zabalkundea www.araba.eus web orriaren bidez egin da.

Era berean, Sailak bere jardueran behar izan dituen hornidura eta zerbitzuen kontrataziorako prozedurak kudeatu dira.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren jardun aipagarri bat da ekonomia eta finantza informazioa prestatu dutela. Informazio hori Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian (irekia.araba.eus) argitaratu da eta eguneraturik egoten da.

Era berean, honako mugarri estrategiko hauek lortu izana nabarmendu behar da:

- Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 27ko 559/2022 Erabakiak Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren proiektua onetsi zuen.
- 2022ko ekitaldian, SAP plataforman ekonomia eta finantza sistema berria ezartzen bukatu zen.
- 2023ko ekitaldirako, urteko aurrekontuen proiektu bat proposatu zen, Arabako Lurralde Historikorako beharrezkoak diren ezaugarriekin.

2.- Kontabilitate arloa.

Foru Sektore Publikoaren jarduera ekonomikoak indarrean dagoen legeria betetzen duela bermatze aldera, aurrekontuak eta aurrekontuz kanpoko eragiketak gauzatu izana fiskalizatu eta kontabilitatean erregistratu da. Halaber, ondare kontabilitatea ere egin da, eta araudiak ezartzen dituen izaera finantzario eta ekonomikoko txostenak egin dira, erabaki organoentzat eta interesatuta dauden gainerako hirurgarrentzat.

Hala, honako txosten hauek egin dira:

- Hilean behin eta Eusko Jaurlaritzarentzat, itundutako zergen bilketari buruzko informazioa.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Por otra parte, durante 2022 se ha continuado suministrando información sobre la evolución coyuntural de la economía alavesa y transmitiendo esta información al conjunto de la sociedad de forma detallada y ordenada. La difusión se realiza a través de la página www.araba.eus.

Asimismo, se han gestionado los procedimientos de contratación de los suministros y servicios que ha necesitado el Departamento para el desarrollo de su actividad.

Un aspecto destacable de la actividad de la Dirección de Finanzas y Presupuestos lo constituye la elaboración de la información de carácter económico – financiero que se ha publicado en el Portal de Gobierno Abierto de la Diputación Foral de Álava irekia.araba.eus y que se mantiene actualizada.

Así mismo, hay que destacar el logro de los siguientes hitos estratégicos:

- El Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral número 559/2022, de 27 de septiembre, aprobó el Proyecto de Norma Foral General Presupuestaria.
- En el ejercicio 2022 finalizó la implantación del nuevo sistema económico -financiero en la plataforma SAP.
- Para el ejercicio 2023 se propuso un proyecto de presupuestos anuales con las características necesarias para el Territorio Histórico de Álava.

2.- Área de Contabilidad.

En aras de garantizar que la actividad económica del Sector Público Foral observe la legalidad vigente, se ha venido efectuando, la fiscalización y el registro contable de la ejecución de los Presupuestos y de las Operaciones extrapresupuestarias, así como la Contabilidad Patrimonial con la generación de los informes de naturaleza financiera y económica destinados a los órganos de decisión y al resto de terceros interesados, que establece la normativa.

Así, se han emitido los siguientes informes:

- Con carácter mensual, con destino al Gobierno Vasco, información de recaudación tributos

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

- Hiru hilerik behin eta Eusko Jaurlaritzarentzat, BEZaren eta zerga berezien bilketari buruzko informazioa.
- Noizean behin:
 - Arabako Batzar Nagusientzako informazioa.
 - Saldo egiaztapenaren gaineko txostenak auditorientzat.
 - Saldoen ziurtagiriak, eta abar.
- Egunero eta Finantza eta Aurrekontu zuzendariarentzat, aurrekontu eta finantza informazioa.

Hilean behin eta Finantza eta Aurrekontu zuzendariarentzat, aurrekontu, ondare eta finantza informazioa.

Hilero, Aurrekontu eta Finantza Egoeraren argitalpena.

Herri Kontuen Euskal Epaitegian lankidetzan jardun da 2021eko Kontu Orokorraren fiskalizazioan eta 2020ko kontu orokorraren txostena jaso da, haren zirriborroari ustez egokiak ziren alegazioak egin ondoren.

2020ko txosten horrek gogobetegarria izaten jarraitzen du, kontuei buruzko iritzia garbia izan baita, eta legezketasunari buruzko iritzia funtsezko gaiei eragiten ez dieten bi salbuespen baino ez ditu izan. Haietako bat jadanik antzemanda zeukaten aldundiaren fiskalizazio organoek.

3.- Aurrekontu arloa.

Arlo honetan, ekintzarik garrantzitsuena izan da Arabako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen 2023rako aurrekontu orokorren aurreproiektua egitea.

Horri dagokionez, hauexek dira jardura nagusiak:

- Aurreproiektu hori egiteko jarraibide tekniko eta ekonomikoak definitu eta onestea.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

concertados.

- Con carácter trimestral, con destino al Gobierno Vasco, información de recaudación IVA e Impuestos Especiales.
- De carácter esporádico:
 - Información a Juntas Generales del THA.
 - Informes de confirmación de saldos para auditorías.
 - Certificados de saldos, etc.
- De carácter diario, con destino al Director de Finanzas y Presupuestos, información presupuestaria y financiera.

Con carácter mensual, con destino al Director de Finanzas y Presupuestos, información presupuestaria, patrimonial y financiera.

Con carácter mensual, publicación de los Estados Presupuestarios y Financieros.

Se ha colaborado con el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en la fiscalización de la Cuenta General de 2021 y se ha recibido el informe de la cuenta general de 2020 a cuyo borrador se habían realizado las alegaciones que se entendían procedentes.

El citado informe de 2020 continúa siendo satisfactorio ya que la opinión sobre las cuentas ha sido limpia y la opinión sobre la legalidad ha tenido solamente dos salvedades que no afectan a cuestiones fundamentales, de las cuales una ya había sido detectada por los órganos de fiscalización de la propia Diputación.

3.- Área de Presupuestos.

En esta área, y como acción más importante, cabe destacar la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos Generales para el año 2023 de los entes integrantes del sector Público Foral del Territorio Histórico de Álava.

En relación a este punto, destacan como actividades principales las siguientes:

- Definición y aprobación de las directrices técnicas y económicas para la elaboración del citado

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

- Aholkularitza teknikoa eta laguntza ematea sailei, haien diru sarrera eta gastu egoeren aurreproiektua egitean sortzen diren arazoak konpontzeko.
- Sailei buruzko informazioa araztu eta integratzea.
- Hainbat ikerketa eta txosten egin dira aurrekontua prestatu baino lehen, bai eta haren eboluzioari buruzkoak ere.
- Gainera, laguntza eman da aplikazio informatikoa hobetu eta egokitzean, bai aurrekontua egiteari dagokionez baita aurrekontu aldaketei dagokienez ere.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuari dagokionez, 2022an, aurrekontuaren aldaketei buruzko espediente hauek izapidetu dira:

- Transferentziak: 121 espediente ebatzi dira, guztira 46.531.896,50 euroko zenbatekoaz.
- Zuzenketa teknikoak: 44 espediente onetsi dira, guztira 18.928.297,24 euroko zenbatekoaz, uneko aurrekontuan, eta 7.551.834,52 euroko zenbatekoaz, datozen urterokoetan.
- Gaikuntzak: 23 espediente onetsi dira, zeinak 143.019.077,79 euroan handitu baitute uneko aurrekontua, eta 4.977.370,38 euroan datozen urterokoak.
- Deuseztatze bajak: 5 espediente onetsi dira, zeinak 556.521,80 euroan gutxitu baitute uneko aurrekontua, eta 1.121.110,66 euroan datozen urterokoak.
- Konpromiso kredituen sorkuntza edo aldaketa: 33 konpromiso kreditu sortu dira, 45 kreditu birbanaketa izapidetu dira eta konpromiso kredituak transferitzeko 5 espediente onetsi dira.

Horren ondorioz, hona hemen gastu eta diru sarreraren

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

anteproyecto.

- Asesoramiento técnico y asistencia a los Departamentos para solventar los problemas que les surjan en la confección del anteproyecto de estados de ingresos y gastos de su respectivo departamento
- Depuración e integración de la información relativa a los distintos departamentos.
- Asimismo, se han realizado diversos estudios e informes previos a la elaboración del presupuesto, así como relativos a su evolución.
- Además, se ha colaborado en la mejora y adecuación de la aplicación informática tanto en lo que respecta a la elaboración del presupuesto como en lo relativo a las modificaciones presupuestarias.

En lo que respecta al presupuesto de la Diputación Foral de Álava, durante 2022 se han tramitado los siguientes expedientes de modificaciones presupuestarias:

- Transferencias: 121 expedientes resueltos, por importe total de 46.531.896,50 €
- Correcciones técnicas: Se han aprobado 44 expedientes, por un importe total de 18.928.297,24 € en el presupuesto corriente y de 7.551.834,52 € en las anualidades futuras.
- Habilitaciones: Se han aprobado 23 expedientes, que han supuesto un aumento del presupuesto corriente de 143.019.077,79 € y de 4.977.370,38 € en las anualidades futuras.
- Bajas por anulación: Se han aprobado 5 expedientes, que han implicado una minoración del presupuesto corriente de 556.521,80 € y de 1.121.110,66 € en las anualidades futuras.
- Creación y/o modificación de créditos de compromiso: se han creado 33 créditos de compromiso, se han tramitado 45 redistribuciones de crédito y se han aprobado 5 expedientes de transferencia de créditos de compromiso.

Como consecuencia de ello, la variación

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

egoeretan izandako aldakuntza:

experimentada en los estados de gastos e ingresos es
la siguiente:

GASTUAK / GASTOS

	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	BALIOG. BAJA BAJA ANULACIONES.	KREDITUAK ERANSTEA INCORPORACIÓN DE CRÉDITOS	GUZTIRA TOTAL
DIPUTATU NAGUSIA DIPUTADO GENERAL	-5.377.555,02	430.197,95	-431.796,00		-5.379.153,07
LURRALDE OREKA / EQUILIBRIO TERRITORIAL	-2.617.353,86	15.220.659,37		17.834.959,74	30.438.265,25
EKONOMIA GARAPENA, BERRIKUNTZA ETA DEMOGRAFIA ERRONKA / DESARROLLO ECONÓMICO, INNOVACIÓN Y RETO DEMOGRÁFICO	1.814.266,00	50.000,00			1.864.266,00
OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTUAK / HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS	-375.736,79	96.770.438,98			96.394.702,19
ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA. / FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL	-112.567,77	1.119.514,33			1.006.946,56
NEKAZARITZA / AGRICULTURA	705.437,50	1.312.705,73	- 3.678,58		2.014.464,65
BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNA / INFRAESTRUCTURAS VIARIAS Y MOVILIDAD	995.124,80	1.976.950,27	- 121.047,22		2.851.027,85
INGURUMEN ETA HIRIGINTZA / MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO	879.503,33	700.864,61			1.580.367,94
KULTURA ETA KIROLA / CULTURA Y DEPORTE	-571.121,83	1.337.348,55			766.226,72
GIZARTE POLITIKAK / POLÍTICAS SOCIALES	727.035,50	4.625.000,00			5.352.035,50
BESTE SAIL BATZUK OTROS DEPARTAMENTOS	3.932.968,14	19.475.398,00			23.408.366,14
GUZTIRA TOTAL	0,00	143.019.077,79	- 556.521,80	17.834.959,74	160.297.515,73

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

SARRERAK / INGRESOS

	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	INKORPORAZIOAK INCORPORACIONES	FLG GFA	BALIOGABETZEAK ANULACIONES.	GUZTIRA TOTAL
DIPUTATU NAGUSIA DIPUTADO GENERAL						0,00
LURRALDE OREKA / EQUILIBRIO TERRITORIAL						0,00
EKONOMIA GARAPENA, BERRIKUNTZA ETA DEMOGRAFIA ERRONKA / DESARROLLO ECONÓMICO, INNOVACIÓN Y RETO DEMOGRÁFICO				50.000,00		50.000,00
OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTUAK / HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS	-15.277.037,00	104.881.375,00		430.197,95	-431.796,00	89.602.739,95
ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA. / FOMENTO DEL EMPLEO, COMERCIO Y TURISMO Y DE ADMINISTRACIÓN FORAL				39.000,00		39.000,00
NEKAZARITZA / AGRICULTURA				1.312.705,73	-3.678,58	1.309.027,15
BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNA / INFRAESTRUCTURAS VIARIAS Y MOVILIDAD				233.582,92	-121.047,22	112.535,70
INGURUMEN ETA HIRIGINTZA / MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO				475.215,51		475.215,51
KULTURA ETA KIROLA / CULTURA Y DEPORTE				1.167.348,55		1.167.348,55
GIZARTE POLITIKAK / POLÍTICAS SOCIALES						0,00
BESTE SAIL BATZUK OTROS DEPARTAMENTOS	15.277.037,00	34.429.652,13	17.834.959,74			67.541.648,87
GUZTIRA TOTAL	0,00	139.311.027,13	17.834.959,74	3.708.050,66	-556.521,80	160.297.515,73

Erakunde autonomoei dagokienez, haien aurrekontuetan ere hainbat aurrekontu aldaketa egon da ekitaldian zehar, baina gutxiago eta diru kopuru txikiagoan.

Halaber, premiak eta soberakinak atzematean lan egin da, baliabideak birbanatzeko, eta Kreditu Orokorraren birbanaketa kudeatu da, sailen programetan sortutako behar berrien arabera.

Gainera, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako aurrekontuen jarraipena egin da; bai eta

En lo que respecta a los Organismos Autónomos, sus presupuestos también han experimentado una serie de modificaciones presupuestarias a lo largo del ejercicio, pero en menor cuantía e importe.

También se ha trabajado en la detección de necesidades y sobrantes, para efectuar las correspondientes redistribuciones de recursos, y se ha gestionado la distribución del Crédito Global en función de las nuevas necesidades surgidas en programas de los diferentes Departamentos.

Además, se ha realizado el seguimiento de los presupuestos aprobados por las Diputaciones Forales

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

likidazio onetsiena ere, eta hainbat azterlan egin dira horren inguruan.

4.- Kontrola eta Auditoretza arloa.

Foru Sektore Publikoaren jarduera ekonomikoak aplikatu beharreko araudia betetzen duela bermatzeko, beharrezko esku hartzeak egin dira indarrean dagoen legerian xedatutako kontrolak modu eraginkorrean gauzatzeko.

Kontrol horren helburua Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Sektore Publikoko gainerako erakundeen aurrekontua egikaritzea izan da. Ildo horretan, erakunde autonomoak, sozietate publikoak, foru fundazioak eta atxikitako partzuergoa gainbegiratu dira, Auditoretza Planean ezarritakoa betetzeko.

Hala, 2022ko ekitaldian, honako auditoretza hauek egin dira:

1.- ERREGULARTASUN AUDITORIAK

- Gizarte ongizaterako foru erakundea.
- Gazteriaren foru erakundea.
- Arabako foru suhiltzaileak.
- Arabako Kalkulugunea SA.
- Araba Garapen Agentzia SAU.
- Naturgolf SA.
- INDESA 2010 SL.
- Enargi Araba SAU.
- Kirolaraba Fundazioa.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Santa Maria Katedrala Fundazioa.
- ARTIUM fundazioa.

2.- URTEKO KONTU AUDITORETZAK:

- Arabako Ur Partzuergoa

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

y por el Gobierno Vasco, así como de las liquidaciones aprobadas, y se han elaborado diversos estudios en relación a ello.

4.- Área de Control y Auditoría.

A fin de garantizar que la actividad económica del Sector Público Foral cumple la normativa aplicable se han realizado las intervenciones necesarias para ejercer de una forma efectiva los controles previstos en la legislación vigente.

Dicho control ha tenido como objeto la ejecución del presupuesto de la Diputación Foral de Álava y del resto de entidades del Sector Público Foral. En este sentido se han supervisado los Organismos Autónomos, las Sociedades Públicas, las Fundaciones Forales, y el Consorcio Adscrito en cumplimiento de lo previsto en el Plan de Auditorías.

Así, durante el ejercicio 2022 se han realizado las siguientes auditorías:

1.- AUDITORIAS DE REGULARIDAD

- Instituto Foral de Bienestar Social.
- Instituto Foral de la Juventud.
- Bomberos Forales de Álava
- Centro de Cálculo de Álava, S.A.
- Álava Agencia de Desarrollo, S.A.U.
- Naturgolf, S.A.
- INDESA 2010, S.L.
- Enargi Araba, S.A.U.
- Fundación Kirolaraba Fundazioa.
- Fundación Valle Salado de Añana.
- Fundación Catedral Santa Maria.
- Fundación ARTIUM

2.- AUDITORIAS DE CUENTAS ANUALES:

- Consorcio de Aguas de Álava

2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

Programa: 931200 FINANTZAK ETA
AURREKONTUAK

3.- DIRULAGUNTZAK KONTROLATZEKO AUDITORETZAK:

- Diruz lagundutako proiektuak, "Interkoop 2018-Enpresak" lerroaren bidez:
 - "Loramendi&Aurrenak nazioartekotze bateratua merkatu estrategikoetan" proiektua.
 - "Hego Amerika sendotzea" proiektua.
 - "Brasilen eta Kolonbian osasun sektoreko Arabako ETEak nazioartekotzea" proiektua.
- Diruz lagundutako proiektuak, "Enplegurako prestakuntza prestakuntza erakundeetan-2018" lerroaren bidez:
 - Cadesk Simulation SL
 - Autoescuela San Prudencio SL
- Diruz lagundutako proiektuak, "Interkoop 2019-Enpresak" lerroaren bidez:
 - "Latinoamerika" proiektua.
 - "Finlandia" proiektua.
 - "Europako merkatuetako artisau loteak: premium likoreak eta ardo ekologikoa" proiektua.
 - "Kupah-Tasty & Egia" proiektua.
 - "Txakolin aromako ginebra" proiektua.
 - "Alemania eta Europako beste herrialde batzuk" proiektua.

4.- KIROL FEDERAZIOEN KONTABILITATEKO EGOERA ORRIAK IKUSKATZEA:

- Arabako ehiza federazioa.
- Arabako mendi federazioa.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 931200 FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

3.- AUDITORIAS DE CONTROL FINANCIERO DE SUBVENCIONES:

- Proyectos subvencionados a través de la línea "Interkoop 2018-Empresas":
 - Proyecto "Internacionalización conjunta Loramendi&Aurrenak en mercados estratégicos".
 - Proyecto "Consolidación Sudamérica".
 - Proyecto "Internacionalización de las Pymes alavesas del sector sanitario en Brasil y Colombia".
- Proyectos subvencionados a través de la línea "Formación para el empleo en entidades de formación-2018":
 - Cadesk Simulation, S.L.
 - Autoescuela San Prudencio, S.L.
- Proyectos subvencionados a través de la línea "Interkoop 2019-Empresas":
 - Proyecto "Latinoamérica".
 - Proyecto "Finlandia".
 - Proyecto "Lotes artesanos mercados europeos: licores premium y vino ecológico".
 - Proyecto "Kupah-Tasty & Egia".
 - Proyecto "Ginebra con aroma txakoli".
 - Proyecto "Alemania y otros países europeos".

4.- AUDITORIAS ESTADOS CONTABLES DE FEDERACIONES DEPORTIVAS:

- Federación Alavesa de Caza
- Federación Alavesa de Montaña